Bergarako Udala

PRESKRIPZIO TEKNIKOEN PLEGUA

BERGARAKO GOIAUZOKO SAN JOXEPE EREMUAREN AZPIALDEAN, UDAL JABEGOKO LURSAILETAN BARATZE PARKEA SORTZEKO

Bergarako
Udala

PRESKRIPZIO TEKNIKOEN PLEGUA

I. KONTRATUAREN XEDEA
II. PROIEKTUAREN EDUKIA
III. HIRIGINTZA-EGOERA
IV. EXEKUZIO-EPEA
V. BERME-EPEA
VI. AURREKONTUA
VII. PROIEKTUA BIRPLANTEATZEA ETA LURZORUAREN ERABILGARRITASUNA
VIII. LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUN PLANA
IX. LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA
X. KONTRATUAREN ALDAKETAK
XI. OBRAK EXEKUTATZEKO BALDINTZAK
XII. HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK

I. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea da Bergarako Goiauzoko San Joxepe eremuaren azpialdean, udal jabegoko lursailetan baratze parkea sortzeko lanak burutzea, "K1 Ekopaisaia SL" enpresak idatzitako proiektu teknikoari jarraituz.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 28. artikuluan dioenari jarraituz, obretako exekuzio-proiektuan dagoen memorian honako hauek justifikatu dira: erakundearen xedeak; kontratuaren bidez bete beharreko premia administratiboen izaera eta hedadura; premiak asetzera begira xedearen eta edukiaren egokitasuna; eta kontuan hartutako beste edozein motatako faktoreak.

Plegu tekniko honen eta exekuzio-proiektuaren artean kontraesanik egonez gero, exekuzio-proiektua gailenduko da.

CPV kodea: 45112000-5.

II. PROIEKTUAREN EDUKIA

Honako hauek dira proiektuaren dokumentuak:

I. MEMORIA DESKRIBATZAILEA

1. OROKORTASUNAK
   - 1.1. ARRAZOIA
   - 1.2. SUSTATZAILEA
   - 1.3. EGILEAK
   - 1.4. HELBURUAK

2. PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA
   - 2.1. EGUNGO EGOERA
   - 2.2. ARAUDI TEKNIKOAREN JUSTIFIKAZIOA
   - 2.3. KONPONBIDEAREN JUSTIFIKAZIOA
   - 2.4. DESKRIBAPEN XEHETUA

3. EGIKARITZA LANEN DESKRIBAPENA
   - 3.1.HASIERAKO LANAK
   - 3.2.LUR MUGIMENDUAK
   - 3.3.IBILBIDEETAKO ZOLADURA
   - 3.4.UR INSTALAKUNTZA
   - 3.5.EURI UR-INSTALAKUNTZAK
   - 3.6.SANEAMENDU INSTALAKUNTZA
   - 3.7.EGITURAKETA LANAK
   - 3.8.ALTZARIAK

4. LANEN EGIKARITZA
   - 4.1. OBRA PLANA
   - 4.2. OBRAREN FASEAK ETA BERMEAK
   - 4.3. PREZIOEN BERRAZTERTZEA

5. SEGURTASUNA, OSASUNA ETA HONDAKINEN KUDEAKETA
   - 5.1. HONDAKINEN KUDEAKETA
   - 5.2. SEGURTASUN ETA OSASUN AZTERKETA

Bergarako
Udala

5.3. SEGURTASUN ETA OSASUN KOORDINAZIOA
5.4. KALITATE KONTROL PROGRAMA

6. AURREKONTUA OROKORRA
EXEKUZIO MATERIALEEN AURREKONTUA
ESLEIPENERAKO OINARRIZKO AURREKONTUA

7. PROIEKTU HONEK BERE BARNEAN JASOTZEN DITUEN DOKUMENTUAK

8. IDAZLANAREN EGILEAK

II. MEMORIA TEKNIKOA

P00. Kokapen orokorra
P02. Ingurunea
P03. Egungo egoera
P04. Ordenazio orokorra 1
P05. Ordenazio orokorra 2
P06. Zuinketa orokorra
P7a. Lur mugimenduak. Orokorra
P7b. Lur mugimenduak. Ebaketak
P7d. Lur mugimenduak. Bidexkak
P8a. Saneamendua
P8b. Saneamendua. Bidexkak
P09. Ur eta argi hornidura
P10. Zoladura eta azalerak
P10a. Zoladura eta azalerak. Bidexkak
P11. Baratzetako egitura
P12. Altzariak
P13. Hondakinen kudeaketa

III.AURREKONTUA

1. AURREKONTU OSOAREN LABURPENA
2. AURREKONTU OSOA PARTIDAKA
3. AURREKONTU OSOA XEHETUA

IV.OINARRIZKO SEGURTASUN ETA OSASUN AZTERLANA

1. MEMORIA
2. BALDINTZA PLEGUA
3. SEGURTASUN ETA OSASUN AURREKONTUA
4. OBRA KROKISA

V. ZABORREN KUDEAKETA AZTERLANA

1. AURREKARIAK
2. DOKUMENTUAREN EDUKIA
3. ERAGILEAK
4. OBRAREN DATUAK
5. ARAUDI KOMUNITARIOA, NAZIONALA ETA AUTONOMIKOA.7
6. HONDAKINEN IDENTIFIKAZIOA (MAM/304/2002 AGINDUAREN ARABERA).
7. SORTU BEHARREKO HONDAKIN-KOPURUA ZENBATESTEA ETA EEHen KUDEAKETA EGOKIRAKO AURREIKUSITAKO KOSTUA BALORATZEA.
8. HONDAKINAK PREBENITZEKO NEURRIAK
9. BANANTZEKO NEURRIAK
10. OBRAN BERTAN EDO KANPOKO BESTE TOKI BATZUETAN BERRERABILTZEKO AURREIKUSPENA
11. SORTUTAKO EEHen "IN SITU" BALORIZAZIO-ERAGIKETEN AURREIKUSPENA.
12. BERRERABILI EDO "IN SITU" BALORIZATU EZIN DIREN HONDAKINETARAKO AURREIKUSITAKO HELBURUA ("EX SITU" BALORIZAZIOA).
13. BERRERABILI EDO "IN SITU" BALORIZATU EZIN DIREN HONDAKINETARAKO AURREIKUSITAKO HELBURUA (EZABATZEA).
14. ERAISPENEN FASEAK.
15. BILTEGIRATZEKO, MANEIATZEKO EDO BESTELAKO KUDEAKETA-ERAGIKETARAKO INSTALAZIOAK.
16. HONDAKINAK KUDEATZEKO BALDINTZEN ETA BETEBEHARREN PLEGUA

VI. BALDINTZA PLEGUA

III. HIRIGINTZA-EGOERA

Bergarako Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak behin betiko onarpena jaso zuen 2009ko maiatzaren 26ko Bergarako Udalbatzaren osoko bilkuran, eta 2009ko uztailaren 27an argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Obraren jarduketa eremua Goiauzoko San Joxepe eremuaren azpialdean, udal jabegoko lursailetan, lur urbanizaezinean, kokatzen da.

Proiektua indarrean dagoen hirigintzako arautegiari egokitzen zaio kokatzen den eremurako.

IV. EXEKUZIO-EPEA

Obrak egiteko epea hiru hilabeteko epean bukatuko da, tokiaren zuinketa-akta sinatzen denetik kontatzen hasita.

Bergarako Udala

V. BERME-EPEA

Obrak bukatu ondoren, obra-harrera egingo da, azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 111-5 artikuluaren arabera, eta sei (6) hilabeteko berme-epea irekiko da azken egiaztapena egin baino lehen. Azken egiaztapena onartu ondoren, ezarritako fidantza itzuliko da, salbu eta enpresa adjudikazio-hartzaileak beste berme-eperen bat eskaintzen badu; horrelakoetan, abalaren ezarpena eta itzulpena berme horri egokituko zaio.

Itzulpenaren erabakia hartu beharko da eta interesatuari jakinarazi beharko zaio berme-epea bukatu eta bi hilabeteko epean.

Berme-epean zehar obrak zaintzeko sortzen diren gastu guztiak kontratistaren kontura izango dira, eta ez du inolako kalte-ordainik kobrako eskubiderik izango. Dena den, halabeharrak sorturiko kalteak salbuetsiko dira, horiek Udalak ordainduko baititu, nahiz eta Udalak eskumena izango duen kontratistari eskatzeko konponketa lanak egin ditzan.

VI. AURREKONTUA

Proiektuaren aurrekontua ondoren zehaztuko da eta bertan sarturik dago honako hauetatik sorturiko kostua: Segurtasun eta Osasun Azterlana, Kalitate Kontrolaren Programa eta Hondakinak Kudeatzeko Azterlana

KONTRATAREN EXEKUZIOAREN AURREKONTUA

KAPITULUA	LABURPENA	EUROAK	%
1. KAPITULUA:	HASIERAKO LANAK	4.984,00	2,93
2. KAPITULUA:	LUR MUGIMENDUAK	14.464,76	8,50
3. KAPITULUA:	INSTALAKUNTZAK EGITURATZEA	31.010,05	18,22
	EURI UREN INSTALAKUNTZA	11.303,20	
	UR ZIKIÑEN INSTALAKUNTZA	5.850,75	
	ARGI INSTALAKUNTZA	3.872,00	
	UR EDANGARRI INSTALAKUNTZA	9.984,10	
4. KAPITULUA:	ZOLADURA ETA AZALERAK	45.131,54	26,52
	ZOLADURA LANAK	26.849,90	
	BIDEZIDORRA	18.281,64	
5. KAPITULUA:	BARATZEZAINTZAREKO EGITURAK	56.964,25	33,47
	ETXOLAREN ERAIKUNTZA	45.968,00	
	EGITURA KOMUNITARIOAK	10.996,25	
6. KAPITULUA:	ALTZARIAK	9.792,20	5,75
7. KAPITULUA:	ZABORREN KUDEAKETA	5.152,70	3,03
8. KAPITULUA:	LAN ETA OSASUN SEGURTASUNA	2.680,20	1,57

BABES KOLEKTIBOAK	832,50
SEINALEZTAPENA.....	119,00
HIGIENE ETA ONGIZATE INSTALAZIOAK...	1.122,10
MEDIKUNTZA PREBENTIBOA ETA LEHEN SOROSPENAK.....	48,00
NORBERA BABESTEKO EKIPAMENDUAK....	558,60

EXEKUZIO MATERIALAREN AURREKONTUA, GUZTIRA.....	170.179,70
Gastu Orokorrak %13,00	22.123,36
Etekin Industriala % 6,00	10.210,78

KONTRATAREN EXEKUZIOAREN AURREKONTUA.....	202.513,84
BEZ (% 21,00):.....	42.527,91
GUZTIRA AURREKONTUA.....	245.041,75

Kontrata edo lizitazio oinarriaren bidezko exekuzio aurrekontua, gastu orokorren eta etekin industrialaren % 19 barne, eta BEZaren % 21 honako diru-kopurua da: 245.041,75 euro.

VII. PROIEKTUA BIRPLANTEATZEA ETA LURZORUAREN ERABILGARRITASUNA

Obren tokiaren egiaztapena (zuinketa-akta) 15 eguneko epean egingo dute –kontratua sinatzen denetik aurrera– obrak egingo dituen enpresaren ordezkariak, obra-zuzendariak edo Bergarako Udalak izendatutako teknikariak. Obrak hasi aurretik, enpresa adjudikazio-hartzaileak lantokia irekitzeari buruzko jakinarazpena eta baliabide prebentiboaren izendapena aurkeztu beharko ditu udaletxean.

Lursailen eskuragarritasuna: Lanak udal jabegoko lursailetan egingo dira.

VIII. LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUN PLANA

Adjudikazio-hartzaileak Segurtasun eta Osasun Plan bat egingo du, eta bertan ikertu, aztertu, garatu eta osatuko dira segurtasun eta osasun azterlanean edo oinarrizko azterlanean jasotako aurreikuspenak. Plan horretan sartuko dira, horrelakorik balegokio, kontratistak proposatu ditzakeen prebentzio-neurri alternatiboen proposamenak, dagokion justifikazio teknikoarekin; hala ere, neurri horiek ezingo dute ekarri azterlanean edo oinarrizko azterlanean aurreikusitako babes-mailen murrizketarik.

Segurtasun eta Osasun Plana, dagokion segurtasun eta osasunaren arloko koordinatzailearen txostenarekin batera, kontratazio-organoari bidaliko zaio, onartua izan dadin lanak hasi baino lehen.

Bergarako Udala

IX. LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA

Obrei 15 egun ekin aurretik obren Kontratista Adjudikazio-hartzaileak Udalari bidali beharko dio "Bergarako Udalari bidali beharreko Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko dokumentazioa", plegu honen 1. Eranskina, sinatua, eta bertan jasoriko dokumentazioa.

X. KONTRATUAREN ALDAKETAK

Herri-onurako arrazoiak direla-eta, Bergarako Udalak kontratua aldatzea izango du Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 205. artikuluan jasotako egoeraren bat gertatzen bada, eta betiere lizitazioaren eta adjudikazioaren funtsezko baldintzak aldatzen ez baditu.

Kontuan hartuta oinezkoentzako bidearen exekuzio-aurrekontua egiteko ezin izan direla topografia-datu zehatzak izan –horretarako belar-sastrakak kendu beharra baitzegokeen–, oinezkoentzako sarbideari (Bidezidorrari) dagokion kapituluan atal honetako neurketan igoeraren bat balego –betiere gehienez % 50erainokoa–, hori ez da kontratu-aldaketatzat hartuko.

XI. OBRAK EXEKUTATZEKO BALDINTZAK

I. OBRAK EXEKUTATZEKO BALDINTZAK

1.01 sekzioa..... SAN JOXEPEKO BARATZE PARKEKO OBRAK EXEKUTATZEKO BALDINTZA OROKORRAK

JARDUKETA-EREMUAN LANAK HASI AURRETIK KONTUAN HARTU BEHARREKOAK

Proiektuaren eta horren aldaketen interpretazioa

Lan guztiak egiteko orduan, hertsiki jarraituko zaie kontratarako oinarritzat hartu den proiektuari, proiektuan aldez aurretik onartu diren aldaketa kuantitatiboei, eta Zuzendaritza Fakultatiboak bere erantzukizunpean Kontratistari idatziz entregatutako aginduei eta jarraibideei, betiere onartutako aurrekontuen kopuruarekin eta espirituarekin bat datozenean. Aldaketek, aginduek eta jarraibideek beti izan beharko dute Bergarako Udalaren oniritzia.

Proiektuaren aplikazioa eta interpretazioa Zuzendaritza Fakultatiboari dagokio esklusiboki eta, horrenbestez, baita proiektua garatzeko agindu osagarriak ematea ere –grafikoki edo idatzita–.

Kontratistak, beharrezko aurrerapenarekin, lanen exekuzioa jakinaraziko die obra-zuzendaritzari eta Bergarako Udalari; horrela, ezkutuan gelditu behar diren lanen exekuzioa ikuskatu ahal izango dute eta baita kontratistaren iritziz ikuskapen beharra duten lanena ere. Proiektatutako lanean edozein aldaketa egin nahi izanez gero, aurrez horren berri eman beharko zaie Obra-

zuzendaritzari eta Kontratu-zuzendaritzari; horiek ez badute horren berririk, ezingo da burutu. Horien guztien planoak egingo dira, neurtu eta kitatu ahal izateko, eta planook obrako Zuzendaritza Fakultatiboak sinatuko ditu; hori ezean, kontratistak berak ordaindu beharko ditu neurketa egiteko behar diren lan osagarriak edo, bestela, onartu egin beharko du Zuzendaritza Fakultatiboak eta Bergarako Udalak proposatzen dutena.

Kontratistak erabilitako materialek, jakina, bete egin beharko dituzte zehaztutako baldintzak; hain zuzen ere, proiektuaren garapen teknikoan eta, zehazki, proiektu honen Preskripzio Tekniko Partikularren Pleguan jasotakoak –bai atal orokorretan, bai partikularretan, bai Preskripzio Tekniko Partikularren Plegu honetan araudi aplikagarriari buruz egindako aipamenetan–.

Horregatik, eta lanen harrera formala egin arte, Kontratista da kontratatu dituen lanen exekuzioaren arduradun bakarra, bai eta horietan egon daitezkeen akats eta hutsuneen arduraduna ere, gaizki egin izanagatik edo erabilitako materialen edo jarritako gailuen kalitate txarragatik; horrelakoetan ez da aitzakiarik izango eta ez dio inolako eskubiderik emango Zuzendaritza Fakultatiboak hari buruzko ohartarazpenik egin ez izanak, ezta obra-ziurtagiri partzialetan baloratu izateak ere, zeren horiek beti suposatzen da kontura ematen eta ordaintzen direla.

Kontratak plegu honetara, obrara edo proiektuko dokumentura egokitzen ez den obra-elementurik egin badu, obrako Zuzendaritza Fakultatiboak eta Bergarako Udalak aukeran izango dute elementu hori onartzea edo ez; onartuz gero, horrek finkatuko du bidezkotzat jotzen duten prezioa, egon daitezkeen ezberdintasunen arabera, eta kontratista behartuta egongo da balorazio hori onartzera; ados ez balego, berriz, gaizki egindako zatia desegin eta berregin beharko du kontratistak bere kontura, zuzendaritzak finkatuko dituen baldintzen arabera, eta hori ez da izango exekuzio-epea luzatzeko arrazoirik.

Zuzendaritza Fakultatiboak edo Bergarako Udalak akasduntzat jotzen duten edozein obra eraitsi egin beharko du kontratistak eta berriz ere eraiki bete beharreko baldintzetan. Plegu hau interpretatzerakoan desadostasunik sortuz gero, kontratistak men egin beharko dio Zuzendaritza Fakultatiboak erabakitakoari.

Zuzendaritza Fakultatiboak edo Bergarako Udalak funtsezko arrazoiak balituzkete egindako lanetan ezkutuko eraikitze-akatsak egoteari buruz, edozein momentutan eta harrera egin baino lehen agindua emango du akasdun izan daitezkeen lanak ikuskatzeko beharrezkotzat jotzen dituen eraispen-lanak egin daitezen. Eragindako eraispen-gastuak eta berreraikitze-gastuak kontratistaren kontura izango dira baldin eta benetan akatsak badaude; bestela, Administrazioaren kontura izango dira.

Zuzendaritza Fakultatiboak kontratistari emango dizkio lanak ondoen egiteko behar beste marrazketa eta xehetasun, eta kontratistak ezingo du emandako jarraibideetatik kanpora irten; horrelakorik egingo balu, egindakoa bere kontura desegin beharko du, betiere Zuzendaritza Fakultatiboak edo Bergarako Udalak beharrezkotzat joz gero.

Kontratistaren kontura eta arriskupean izango dira –eta eskaintza ekonomikoetan sartuta egongo dira– lanak behar bezala egiteko behar diren aldamio, zinbra, makina eta gainontzeko baliabide laguntzaileen kostuak; horrenbestez, jabeak ez du izango inolako erantzukizunik baliabide laguntzaile horien hutsuneengatik lanetan gerta daitekeen edozein matxuraren edo istripu pertsonalen aurrean. Baliabide horiek baldintza guztiak bete behar dituzte, Laneko Segurtasuneko arloan indarrean dagoen legedira hertsiki egokitzeko moduan.

Adjudikazio-hartzailearen ustez proiektuari erantsita emandako azterketa geoteknikoa nahikoa ez bada, beharrezkotzat jotzen dituen zundaketak, entseguak eta azterketak bere kontura egin beharko ditu, eta horrelakoetan ezinbestez Udal Zerbitzu Teknikoen berariazko baimena izan beharko du.

Obraren adjudikazio-hartzailea den kontratista behartuta dago bere kontura berregitera aurrez zehaztu den eremutik kanpo lanen garapenean hondatu diren azalera guztiak; hain zuzen ere, ibilgailuak eta makinak kokatu eta mugitzerakoan eragindakoak, sortutako hondakinak husterakoan eragindakoak, edo baliabide laguntzaileak, pilaketak, obra-kasetak eta abar erabiltzerakoan.

Jarduketa-eremuan lanak hasi aurretik kontuan hartu beharrekoak

Obraren adjudikazio-hartzailea den kontratista behar bezala mugarrituko du lan-tokia. Zuzen seinaleztatuko du lan-tokia, obretako segurtasun eta osasunaren arloan indarrean dagoen araudiaren arabera, eta baita lan-tokiarekin muga egiten duten inguruak, obrak daudela adierazita gelditu dadin alboko bideetan –oinezkoenetan nahiz ibilgailuenetan–.Lan-tokira bakarrik horretarako baimendutako langileak sartu ahal izango dira eta bete egin beharko dute obretako lan-tokietako segurtasun eta osasun arloko araudia (NBEak, Babes Kolektiboak, etab.).

Obraren adjudikazio-hartzailea den kontratistak ez du egingo toki horretan zanga-hondeatzearen edo lur-mugitzearen arloko inolako lanik harik eta lurrazpiko instalazio guztiak –udalaren eta udaletik kanpokoen titularitatekoak– zuinkatu, kokatu eta ondo egiaztatu arte, halakorik balego.

Materialak pilatzeko orduan, aurrez zehaztutako pilatze-tokietan egingo da eta betiere homologatutako eta erabilera- eta mantentze-egoera onean dauden eslingak erabilita. Jarduketa hori egiten den bitartean, garabi-kamioiaren bitartez pilatu beharreko materialen ibilbidearen bertikalean ez da inor egongo. Ez da inor ere egongo makineriaren ekintza-erradioan.

Kontratista adjudikazio-hartzailea ez da izango inoiz ere ez lur-mugimenduen ondorioz lor daitezkeen materialen jabea; horrenbestez, ezingo dizkie hirugarrenei inolako tituluren bidez besterenganatu, ezta aprobetxatu ere. Beraz, obran bertan erabiltzeko helburuetatik kanpo, material horien beste edozein erabilpenetarako –bai zuzenean, bai landu ondoren–, Obra Zuzendaritzaren baimena beharko da.

Materialaren erabilera-helburua aldatzeko moduko baldintza teknikoak Obra Zuzendaritzak zehaztu beharko ditu.

Edozein lan-mota hasterakoan, jardute-eremua ondo mugarrituko da, obraren itxidura egingo da eta lan-tokira sartzeko debekuaren seinaleztapena jarriko da. Ezinbestez jarri beharko da segurtasun eta lan arloan indarrean dauden neurriak obran betetzeari buruzko seinaleztapena.

Lan-toki balizatuen eta ibilgailu-trafikoa dagoen galtzadaren artean makineriaren sartu-irtenak beti seinalegile batek ikuskatuta egingo dira eta galtzadan estugune balizatua eginda.

Lanen kokapena ezagutzea

Kontratistak kokapena eta inguruak ikuskatuta eta aztertuta izan beharko ditu, bai haien konfigurazioa eta izaera, bai egin beharreko lanen irismena eta obrak egiteko beharko diren materialak, bai kokapenera joateko sarbideak eta beharko dituen baliabideak. Obra egoki egiteko

beharrezkoa edo komenigarria delako kontratista adjudikazio-hartzaileak erabili beharko balitu proiektuan sartuta ez dauden bide publiko edo pribatu batzuk ibilgailuak edo makinak bertatik iragateko, eta bide horiek ez balira gai ibilgailu edo makina horien iragana jasateko, kontratista adjudikazio-hartzailearen ardura izango da obren exekuzioan zehar eta betiere jabearen iritziz bideak egoki erabiltzeko moduan bere kontura mantentzea eta, behin obrak bukatutakoan, bideak egoki konpontzea, horren barne egonik behar diren birlandaketak eta ingurumena biziberritzeko lanak, gutxienez obra aurretik zegoen antzeko egoerara itzultzeko xedez. Zehazki, erabili beharreko bideak udalaren jabetzakoak balira, kontratista adjudikazio-hartzaileak udalaren berariazko baimena lortu beharko du, nahiz eta bidea erabilera publikokoa izan.

Kontratistak kontratutik eratorritako betebehar guztiak bete beharko ditu, eta beste dokumentu, aurretiko azterlan, edo txosten teknikoak erabilita edo proiektuan ezarritako suposizioetatik eratorrita edo, orokorrean, jabeek lizitatzaileei emandako edo lizitatzaileek eurek lortutako edozein informazio osagarritatik sor daitezkeen interpretazio-akatsek ez dute betebehar haietatik salbuetsiko.

Obra-delegatua

Era berean, kontratak delegatu bat izendatuko du eta hori beti egon beharko da obran. Delegatuaren eginkizuna izango da Zuzendaritza Fakultatiboak emandako aginduak jaso eta ulertzea; proiektua eta Preskripzio Tekniko Partikularren Plegua ezagutuko ditu eta lana baldintza onetan egin dadila zainduko du, eraikingintzaren arte-trebetasun egokien arabera.

Obraren Zuzendaritza Fakultatiboak edo Bergarako Udalak deitutako guztietan, kontratista obran aurkeztu beharko da. Obran bertan, eta bere kontura, bulego-kaseta bat jarri beharko du, eta bertan dagozkion kontsultak egiteko moduko material egokia egon beharko da. Kontratistak kaseta horretan eduki eta gordeko du "Aginduen Liburu Ofizial" bat, non jasoko diren Zuzendaritzak eman behar dizkienak; hala ere, Zuzendaritzak beharrezkoa dela ikusten duenean, ofizioz eman ahal izango ditu aginduak eta kontratista jakinean dagoela egiaztatzeko kontratistak aginduan bertan sinatuko du, eta jakin izanaren egiaztapenaren ordua ere adieraziko da. Kontratak agindu hauek betetzea derrigorrezkoa du, plegu honetan jasotako baldintzak betetzea bezain derrigorra, alegia.

Epea

Dagokion kontratua eratu eta sinatu ondoren, kontratistak hogeita hamar (30) eguneko epea izango du lanak hasteko, eta bukatuta eduki behar izango ditu kontratuan zehaztuko den epean, inolako luzapenik gabe.

Obrak ezingo dira eten –gehienez ere– hamabost (15) egunetik gora.

Kontratua sinatu ondorengo obra hasteko epeak eta baita berme-aldiaren iraupena ere Preskripzio Fakultatibo hauetan zehaztutakoak izango dira, betiere obra adjudikatzeko kontratuan beste epe batzuk zehazten ez direnean.

Gastuak

Kontagailu bat jarri beharko da, obrak irauten duen bitartean ur-kontsumoa neurtu dezan. Ildo honetan, enpresa adjudikazio-hartzaileak ordaindu beharko du egindako kontsumoa, eta baita obra gauzatzean izango dituen beste hornidura-zerbitzuetatik eratorritako kostuak ere (gasa, elektrizitatea, etab.).

OBRAK BURUTZEA

Zuinketa egiaztatzeko akta

Zuinketaren egiaztapena formalizatzeko bertan kontratista egongo da eta akta bat jasoko da, non sinatuko duten kontratistak, Bergarako Udalak, obra-zuzendariak, eta segurtasun eta osasuneko koordinatzaileak.

Zuinketa egiteko eskaria Udalari bost (5) eguneko aurrerapenarekin egin beharko zaio, eta Udalak zehaztuko du ekitaldia zein egunetan eta ordutan egingo den. Eskaerarekin batera aurkeztu behar den zuinketa-planoa udal kartografia digitalaren Erpin Topografikoen araberakoa izango da.

Obrak burutzeko epea hasiko da Obraren Zuinketa Egiaztatzeko Akta sinatzen denean.

Zuinketaren Egiaztapenetik eratorritako gastu guztiak obraren kontratista adjudikazio-hartzailearen kontura izango dira. Obra-zuzendariak Zuinketaren Egiaztapenaren ekintza Aginduen Liburuan jasoko du, eta bere sinaduraren bitartez baimenduta geldituko da, eta obra-buruak "jakinean gelditzen dela" sinatuko du.

Zuinketaren Egiaztapenetik aurrera, obrak burutzeko behar diren zuinketa-lan guztiak kontratista adjudikazio-hartzailearen kontura eta arriskupean egingo dira. Obra-zuzendariak, obraren kontratista adjudikazio-hartzailearen eskariz, azken honek egindako zuinketak egiaztatuko ditu, eta ezingo du inolako obrarik edo obra-zatirik hasi Bergarako Udalak ez badio onartu dagokion zuinketa.

Obraren kontratista adjudikazio-hartzaileak egindako edozein zuinketa-lan onartzean, Bergarako Udalak ez ditu berariaz onartzen lan horretan egin ahal izan diren akatsak; era berean, zuinketa-lanek Udalaren onarpena izateak ez du gutxitzen obraren kontratista adjudikazio-hartzaileak lanen egikaritzan duen erantzukizuna. Obraren kontratista adjudikazio-hartzaileak egindako zuinketa-akatsek eragin ditzaketen kalteak kontratistak bere kontura zuzendu beharko ditu, Bergarako Udalak adieraziko duen moduan.

Obraren kontratista adjudikazio-hartzaileak bere kontura jarri beharko ditu zuinketa-lanak egiteko beharrezkoak diren material guztiak, aparatu eta ekipamenduak, espezializatutako langile teknikoak eta lanesku osagarria. Halaber, bere kontura egingo ditu lan horiek behar bezala egiteko beharrezkoak diren sarbideak, bidezidorrak eta abar.

Obraren kontratista adjudikazio-hartzailearen erantzukizuna izango da, Kontratua indarrean den aldian, lursailean gauzatutako puntu topografiko guztiak eta seinale nibelatuak zaintzea.

Obraren kontratista adjudikazio-hartzaileak bete egin beharko ditu eskumena duten Erakundeek finkatutako eskakizunak.

Aginduen eta gertakarien liburua

Aginduen Liburua, Bergarako Udalak behar bezala izapidetuta, zuinketa egiaztatzen den egunean irekiko da, eta behin betiko harreran itxiko.

Denbora-tarte horretan, obra-zuzendariaren eta Bergarako Udalaren eskura egongo da, obraren kontratista esleipendunaren obra-bulegoan, eta, hala dagokionean, bertan idatziko ditu egokitzat jotzen dituen agindu, jarraibide eta komunikazioak, bakoitzak bere eskumenen esparruan, eta bere sinadurekin baimenduko ditu.

Behin betiko Harreraren ondoren, Aginduen Liburua Bergarako Udalaren esku geldituko da. Obraren kontratista adjudikazio-hartzaileak nahi duenean kontsultatu ahal izango du.

Obra-zuzendariak eta Bergarako Udalak Aginduen Liburuan idatzoharrak zuzentasunez idatz ditzaten, obraren kontratista adjudikazio-hartzailea behartuta dago haiek behar dituzten era guztietako datuak bil ditzaten ahalbidetzera.

Obrek iraun bitartean, obraren kontratista adjudikazio-hartzaileak men egingo die obra-zuzendariak emandako agindu eta jarraibide teknikoei eta Bergarako Udalak emandako jarduketa-agindu orokorrei. Agindu eta jarraibideok idatziz emango zaizkio jakitera Aginduen Liburuaren bidez, eta obraren kontratista adjudikazio-hartzaileak edo bere ordezkariak "jaso izana" sinatuko du.

Obraren kontratista adjudikazio-hartzaileak uste badu agindu batek kontratuari dagozkion betebeharrak gainditzen dituela, ohartarazpena idatziz eta justifikatuta aurkeztu beharko du astebeteko (7 eguneko) epean; hortik aurrera ez da aintzat hartuko. Erreklamazioak ez du zerbitzu-aginduaren betearazpena eteten.

Obraren kontratista adjudikazio-hartzailea behartuta dago Bergarako Udalak eta obra-zuzendariak idatziz adierazitako aginduak onartzera, baita agindu horiek aurretik emandakoak aldatu edo baliogabetzen badituzte ere, edo aurretik baimendutako planoak edo horiei erantsitako dokumentazioa aldatzea badakarte ere.

Gorabeheren Liburuari dagokionez, eraikuntza-obretako segurtasun eta osasunaren arloan indarrean dagoen legearen artikuluetan zehazten diren guztiek ikusteko eta eskuratzeko moduan egongo da.

Harremanak eta bilerak

Adjudikazio-hartzailea gutxienez zazpi (7) egunetik behin jarriko da harremanetan eta bilduko da Bergarako Udalarekin obran izandako arazoak aztertzeko. Obra-zuzendaritzak idatziz jasoko du bilera guztietan adostutakoaren berri eta akta idatziko du.

Obra-plana

Obraren kontratista adjudikazio-hartzailea behartuta dago Lan-programa aurkeztera. Dokumentu horretan informazio hau eskaini beharko du, gutxienez:

- Egutegia: jarduerak egiteko beharko diren egunak zenbatetsiko dira, prestaketa-lanak eta obrak, instalazioak eta obra osagarriak barne, eta baita behin betiko obraren zatiak edo motak egiteko egunak ere.
- Programatutako obraren hileroko balorazioa.

- Lan-programa bateragarria izan behar da kontratuan —Obra-planaren arabera— finkatutako faseekin eta epeekin.

Edonola ere, kontratista adjudikazio-hartzailea Plegu honetan egiten diren oharretara eta kontratu-zuzendariaren esanetara egokitu beharko da, obra-lekuak irekitzeko denbora minimizatzeko. Era berean, zerbitzu-hornitzaile diren enpresen kontratei — beste lan batzuk egingo dituztenei—, lan horiek egiten utzi behar die, haiekin koordinatuko da eta lanen lekura sartzea ahalbidetuko die. Zalantzak badaude edo balizko atzerapenen kasuan, kontratista adjudikazio-hartzaileak men egingo dio kontratu-zuzendariak agindutakoari. Proiektatutako zerbitzuek eta abian direnek tarteak zaindu eta babesak izan behar dituzte gas-sarearen, Iberdrolaren eta telefonia-operadoreen zerbitzuekiko, enpresa hornitzailearen araudiarekin bat. Kontratista adjudikazio-hartzaileak obra-zuzendariari eta enpresa hornitzaileari jakinarazi beharko die, lanak hasi aurretik, kontratak zein datatan egin ahal izango dituen sarea kanalizatzeko lanak. Ohartarazpena jaso ondoren kontratak bi aste baino gehiagoz atzeratzen badu lanen hasiera (jakinarazi zaion datatik aurrera), gerta litezkeen atzerapenek ez diote ondoriorik ekarriko kontratista adjudikazio-hartzaileari obra-epeak betetzeari dagokionez. Lanen hasiera hilabete baino gehiagoz atzeratuko balitz (lanen balizko hasierarako adierazitako datatik aurrera), obra-zuzendariak kontratu-zuzendariari jakinaraziko dio eta ondorioak kontuan hartuta jardungo dute. Edonola ere, obra hastean, kontratista adjudikazio-hartzaileak obren hasiera orokorraren berri eman beharko die abian diren eta proiektatuta dauden zerbitzuetako enpresa-hornitzaileei, eta ildo horretan beharrezkoak diren izapideak burutuko ditu.

Hain zuzen ere, zangak eta/edo putzuak hondeatzeko lanak eta abar hasi aurretik. Kontratista adjudikazio-hartzailea kaltetutako hiri-instalazioetako eta/edo zerbitzuetako jabe guztiekin jarriko da harremanetan, teknikariek instalazio edo zerbitzuon kokapena zehaztu dezaten, proiektuaren planoetan diren datuak egiaztatze aldera. Era berean, obra nagusiak kaltetuko dituen mota guztietako zerbitzuak erretiratzeko eta berriro jartzeko lanak koordinatuko ditu eta, dagokionean, egokitu egingo du bere jardueren erritmoa eta sekuentziak multzoaren eraginkortasuna hobetzeko.

Proiektuan jasota ez dagoen zerbitzuren bat antzemanez gero, obraren kontratista adjudikazio-hartzaileak berehala jakinaraziko dio obra-zuzendaritzari eta zerbitzuaren jabearekin jarriko da harremanetan. Une horretatik aurrera, jabeak edo obra-zuzendaritzak erabakiko dituen neurriak onartuko ditu.

Lan-programa egokitze aldera, kontratu-zuzendariak jarraibideak, arauak edo berrikuspenak adierazi edo egingo ditu; hori horrela izanik ere, kontratuan zehaztutako epeak betetzeko ardura du kontratistak.

Puntu honetan aipatutakoa betetzeak sor litzakeen gastuak kontratuaren prezioan sartuta daude eta, beraz, ez dira aparte ordainduko.

Obrarako sarbideak

Kontratista adjudikazio-hartzailearen kontura izango dira garraiorako komunikabide guztiak, hala nola saihesbideak, bidezidorrak, pasabideak, plano inklinatuak, materialak obrara garraiatzea eta abar.

Obrek iraun bitartean, obra-leku guztiak —bai behin behinekoak eta bai iraunkorrak— irisgarriak izan daitezen, kontratista adjudikazio-hartzaileak beharrezkoak diren ekintzak burutuko ditu eta baliabide materialak eta giza baliabideak erabiliko ditu.

Itxitura eta seinaleztapena

Seinaleztapen eta itxitura guztiak Bergarako Udalaren xedapenen araberakoak izango dira, eta BERGARAKO UDALAren logotipoa izango dute serigrafiatuta.

Enpresa adjudikazio-hartzailearen kontura jarriko dira, babes-hesiaren gainean, gune publikotik ikusteko moduko lekuan, gutxienez bi errotulu edo kartel, udaleko zerbitzu teknikoekin adostuta. Errotulu edo kartel horiek obraren nondik norakoak adieraziko dituzte, besteak beste, xedea, epeak, enpresa emakidaduna eta abar, Bergarako Udalak emango duen ereduaren arabera.

Enpresa kontratistaren kontura izango da kartelak hornitu eta ipintzea, eta obraren gastu orokorretan sartuko da.

Beste edozein motatako kartela edo hesia jarri aurretik Udalaren berariazko baimena eskuratu beharko da.

Obraren itxitura jarri ahal izateko, okupatuko den lurzoru publikoaren eremua markatuta izango duen krokisa aurkeztu beharko da. Hesiaren antolamenduak, dimentsioak eta ezaugarriek Udaleko Zerbitzu Teknikoen oniritzia izan beharko dute, eta baita oinezkoentzako pasabideen eta saihesbideen soluzioek ere. Obra dela-eta, behin-behineko elementuak babestea eta seinaleztatzea bat etorriko dira apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren II. Eranskinaren 4.3. artikuluak ezarritakoarekin, irisgarritasunari buruzkoa dena. Nolanahi ere, behin-behineko oinezkoen ibilbideak oztoporik gabeko gutxieneko pasabide bat bermatuko du.

Kontratista adjudikazio-hartzailea behartuta dago itxiturak eta segurtasuneko eta seinaleztapeneko elementuak egokitasun- eta higiene-baldintza egokietan edukitzera. Irekitzeko ateak obraren barrualderantz zabalduko dira.

Hesia jarri eta kentzearen ondorioz bideetan eta hiri-altzarietan sortutako kalteak kontratista adjudikazio-hartzaileak konponduko ditu, bere kontura; beraz, konponketa-lan horiek ez dute kontratuko preziorik aldatuko.

Obrak hasi aurretik, adjudikazio-hartzaileak, Bergarako Udalarekin adostuta, oharra jarri beharko du kaltetutako eraikin guztietan, ele bitan idatzita, non obren hasiera-epea eta bizilagunengan izan ditzaketen eragina adieraziko dituen.

Kontratista behartuta dago seinaleak bere kontura jartzera, hain zuzen, obraren sarbidea, lanek betetzen duten zonaldeko zirkulazioa eta lanen bilakaeraren ondoriozko puntu arriskutsuak —bai zonaldean bertan eta bai horren mugetan eta inguruneetan— adierazteko beharrezkoak diren seinaleak.

Kontratistak bete egin beharko ditu zuzendaritzak seinale osagarriei buruz edo jarrita daudenak aldatzearen inguruan idatziz helaraziko dizkion aginduak.

Seinaleztapenak sortuko dituen gastuak kontratistaren kontura izango dira.

Obrako instalazioak, makinak eta baliabide laguntzaileak

Kontratista adjudikazio-hartzailea behartuta dago, bere ardurapean, makinak, tresnak eta baliabide laguntzaileak eskura izatera; eta horien kopurua, motak, ezaugarriak, kalitatea, ahalmena, potentzia eta kantitatea kontratuaren xedea egoki aurrera eramateko nahikoa izan beharko dira. Halaber, lanen bilakaerak horrela eskatuz gero, baliabide horiek ugaritzeko aukera izango da, inongo ordainik jasotzeko eskubiderik gabe. Makinen multzoan daude lanak egiteko erabili beharreko guztiak, langileek edo adjudikazio-hartzailearekin lotura duten enpresek erabili beharrekoak, baliabide laguntzaileak barne.

Gainera, behartuta dago makinak zuzen eta egoki erabiltzera, mantentzera eta zaintzera.

Kontratista adjudikazio-hartzailearen kontura izango da telekomunikazioen oinarrizko sistema —bulegoetako, biltegietako, lantegietako, laborategietako eta lehen sorospenetako zerbitzuetako telefonoak, adibidez—.

Kontratista adjudikazio-hartzailearen eginbeharra izango da kontratatutako obrak egiteko beharrezkoak diren instalazio osagarriak eta obra osagarriak osotasunean proiektatzea, eraikitzea, gordetzea, ustiatzea, desmuntatzea, eraistea eta obratik kentzea.

Puntu honetan aipatutakoa betetzeak sortuko dituen gastuak dagozkien unitateetan sartuta daudela hartuko da kontuan, eta, beraz, ez dira aparte ordainduko.

Beharrezko garabiak eraikitzeko orduan, dagozkien legezko xedapenetan finkatutakoa beteko da.

Aldamio bat edo bestelako baliabide lagungarri bat (karga-jasogailuak, plataformak, aldamio finkoak, mugigarriak, esekiak etab.) bide publikora begira jartzeko, hala badagokie, enpresa fabrikatzailearen jarraibideak beteko dira muntaketa egiteko; eta nibelazio-torloju amaigabeen azpian zurezko habetzanak jarri behar dira. Baliabide laguntzaileak instalatu ondoren dokumentua aurkeztu behar da Udaletxean, obra zuzentzen duen teknikariak izenpetuta, non muntaketa egoki egin dela egiaztatzen den eta obrak iraun bitartean baliabidea eta horren babesak (sareak, uhalak, biserak, hesiak etab.) mantenduko direla bermatzen den. Baliabidea babesten duen erantzukizun zibileko polizaren kopia erantsi beharko zaio dokumentuari.

Muntatzaile gaituek egingo dute muntaketa eta teknikari tituludun baten ardurapean egongo dira. Teknikariak egingo du lan horren plangintza eta bera izango da arduraduna. Muntaketa-ziurtagiria egingo du, Udalak eskuragarri izango duena.

Zamalanek ez dute bide-trafikoa oztopatuko, eta kalea behin behinean itxi beharra aurreikusten bada aurrerapen nahikoarekin ohartarazi beharko zaio Udalari. Nolanahi ere, aldi baterako pasabiderako baimena eskura daiteke horretarako eskabidea Udalean aurkeztuta.

Kontainerra erabiltzeko, hala badagokio, honako baldintza hauek bete beharko dira:

- Jarriko diren edukiontziek argi eta garbi idatzita izango dute enpresaren izena, kontainerraren zenbakia eta erakunde instalatzailearekin harremanetan jartzeko telefono zenbaki bat gutxienez.

- Kontainerra eraman egin beharko da bertan materia organikoak edo usteltzeko modukoak bota dituztela antzematen bada.

- Ezingo da zuzenean bide-zoruaren gainean utzi edo bertatik arrastatu, tartean ziriak edo bestelako materiala jarri beharko da.

- Udaltzaingoari eman beharko zaio kontainerraren instalazioaren berri, kokapen zehatza eta zuzena erabakitzeko.

- Kontainerra jartzeko epea dagokion obra egiteko aldiaren menpe eta horren barruan egongo da.

Kontratista adjudikazio-hartzailearen obrako bulegoak

Kontratista adjudikazio-hartzaileak obretako bulegoa jarri beharko du lanak hasi aurretik, eta horiek iraun bitartean izango du martxan egokien iruditzen zaion lekuan, kontratu-zuzendariaren aldez aurreko adostasunez.

Kontratista adjudikazio-hartzaileak nahitaez gorde beharko ditu bulego horretan Kontratuaren oinarri den proiektuaren edo proiektuen kontratu-dokumentuen kopia baimendua eta Aginduen Liburua, betiere Zuinketa Egiaztatzeko data baino lehen.

Kontratista adjudikazio-hartzaileak ezingo du obrako bulegoa lekuz aldatu kontratu-zuzendariaren aldez aurreko baimenik gabe.

Obrek iraun bitartean mantentzea

Kontratista adjudikazio-hartzailea behartuta dago, obrek iraun bitartean eta obraren azken egiaztapena egin arte, honako hauek mantentzera: Kontratuaren xede diren obra guztiak, proiektuan sartu diren aldaketei dagozkienak barne; eragindako bide publikoak, sarbideak eta bide-zorrak; behin-behineko saihesbideak; dauden seinaleak eta obrari dagozkionak; eta abian egon behar diren obra, elementu eta instalazio osagarri guztiak, erabilera-baldintza onetan mantenduz.

Horien mantentze-lanek ez dute oztopatuko obraren erabilera publikoa edo zerbitzua, ez aldameneko hiri-bideak edo bide-zorrak erabiltzea; eta oztopatzen badituzte, aldez aurretik kontratu-zuzendariak baimendu beharko ditu eta egoki seinaleztatuta egon beharko dira.

Obraren azken egiaztapena egin orduko, kontratista adjudikazio-hartzaileak burututa izango du obraren garbiketa orokorra, kenduta izango ditu instalazio osagarriak eta, kontratu-zuzendariak aurkakoa agintzen ez badu, erabilezin bihurtuko diren obra osagarrien lurzoruan eraitsi, irauli eta egokitzeko lanak eginak izango ditu.

Obrek iraun bitartean egingo diren mantentze-lanak ez dira zuzenean ordainduko, eta kontratuaren prezioan sartuta daudela hartuko da kontuan.

Zortasunak eta baimenak

Kontratista behartuta dago, obrak iraun bitartean, Baldintza Partikularren Pleguan aipatzen diren zortasunak aldi horretan zaintzera eta, bukaeran, berrezartzera.

Zortasunen zerrenda zuzentzeko aukera egongo da, Zuinketa Egiaztatzearen ondorioz edo obra egin bitartean sortutako beharren arabera.

Kontratistaren kontura izango dira zortasun horiek mantentzeko eta berrezartzeko beharrezkoak diren lanak.

Gainera, mantendu eta berrezarri egin beharko ditu, hala badagokie, aipatutako zerrendan azaltzen ez diren eta kontratuaren aurretik zeuden zortasunak ere, baina kasu horretan eskubidea izango du lanon gastuak kobratzeko.

Edateko ura, energia elektrikoa, gasa eta telefono-zerbitzua hornitzeko eta banatzeko zerbitzuek, eta baita saneamendukoek ere, zortasun-izaera dute artikulu honetan finkatutako ondorioetarako.

Kontratistak aurrerapen nahikoaz eskuratu beharko ditu obrak egiteko beharrezkoak diren baimen guztiak, eragozpenik ez izateko Lan-programa betetzeko orduan. Baimen horiek lortzearen ondoriozko kudeaketa-gastuak kontratistaren kontura izango dira beti.

Kontratista behartuta egongo da baimena eman duen erakundeak ezarri dituen baldintza guztiak zorrozki betetzera, hain zuzen, baimendutako lanen neurriei, arreta-neurriei, prozedurei eta egikaritze-epeei dagokienez.

Obren eraginez berriro jarri edo aldatu behar badira azpiegitura-sareren bat, arketa, arketa-tapa edo hustubideren bat, edo hiri-altzarietako, argiteriako, lorategietako, zoladurako edo urbanizazioko beste elementu osagarriren bat, horiek obran jarri baino lehen Udaleko Zerbitzu Teknikoen oniritzia lortu beharko da.

Kalitate kontrola

Kalitate-kontrola bat etorriko da indarrean den araudi aplikagarriarekin.

Kalitate-kontrola proiektuaren dokumentuetan azaldutakoaren arabera egingo da.

Edonola ere, kontratista adjudikazio-hartzaileak beharrezkoak diren proba eta entsegu guztiak egin beharko ditu burututako obra-unitate bakoitza egoki egin dela eta egoki funtzionatzen duela ziurtatzeko.

Kontratu-zuzendariak eta obra-zuzendariak une oro izan beharko dute saiakuntza horietatik ondoriozta daitezkeen emaitzen berri. Irregulartasunen bat antzemanez gero, obrak geldiarazi ditzakete eta egoki deritzeten erabakiak hartu.

"Kalitate-kontroleko programan" aipatzen diren saiakuntzak, analisiak eta probak egingo dituen laborategiak Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Etxebizitzako, Lurzoru eta Arkitektura Zuzendaritzak emandako egiaztagiria izan beharko du, edo beste Administrazio Publiko batek emandakoa, betiere laborategiak ziurtatzeko kasu bakoitzean aplikagarriak diren xedapen arautzaile orokorren araberakoa bada.

Puntu honen arabera programatu den obraren kalitate-kontrolak eragindako gastuak kontratista adjudikazio-hartzailearen kontura izango dira, indarrean den legedian aurreikusitako mugen barruan. Hori horrela izango da kontratista adjudikazio-hartzaileak bere kalitate-kontrola egiten badu ere.

Orokorrean, kontratuak aurkakoa adierazten ez badu, Egikaritze-proiektua zuzenean gauzatzeko aurrekontuaren % 1 izango da. Kalitate-kontroleko proben ondoriozko gastuak kontratista adjudikazio-hartzaileak zuzenean ordaindu beharko dizkio Administrazioak aukeratutako kalitate-kontroleko laborategiari, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Araudi Orokorreko 145. artikuluak xedatutakoarekin bat. Zenbateko horretan ez du eraginik izango obra-kontratuaren adjudikazio-bajak. Era berean, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 228.

artikuluan aurreikusita dagoenez, kontratista adjudikazio-hartzailearen "azpikontratistatzat" hartuko da kalitate-kontroleko laborategia, ordainketa-baldintzak eta -epeeak aplikatzeko ondorio guztietarako.

Proiektuan aurreikusita ez dauden saiakuntzak, obra-zuzendariaren iritziz edo kontratu-zuzendariaren balorazioaren arabera egin beharrekoak direnak, adjudikazio-hartzailearen kontura izango dira.

Obran sartzen den material guztia kontrolatu behar da, hornitzaileei materialen kalitate-ziurtagiriak eskatuz.

Sustapen Ministerioak homologatutako kalitate-ikurra, zigilua edo marka duten materialak erabiltzen direnean —CIETSID zigiluaren kasuan izan ezik—, obra-zuzendaritzak materialaren harrera sinplifika dezake eta kanpoko ezaugarriei bakarrik erreparatu, betiere materiala eta horren dokumentazioa egiaztatuta obrara iristen direnean.

Era berean hartuko dira EBko estatu kideetatik datozen produktuak, estatuko espezifikazio teknikoekin fabrikatutakoak, testu honetan adierazitako segurtasun-helburuen parekoak bermatzen dituztenak eta jatorrizko estatu kideetan ofizialki onartutako laborategiek egindako kontrol- edo saiakuntza-ziurtagirien bermea dutenak.

Obra-zuzendariak bakarrik erabaki dezake, kontratu-zuzendariaren baloraziopean, material bat proiektuan jasota dagoen beste baten "antzekoa" dela.

Kontratista adjudikazio-hartzaileak plangintza egin beharko du instalazioen ehuneko ehunari probak egiteko, ez du ezer estatistika-kontrol hutsera mugatuko. Egikaritze-proiektuan material eta ekipamendu nagusien zerrenda azalduko da, horiek diseinatzeko, fabrikatzeko eta muntatzeko erreferentzia-arauekin eta ezaugarriak eta prestazioak jasoko dituen fitxarekin batera.

Obrak hasi aurretik, kontratista adjudikazio-hartzaileak Kalitatearen Autokontrol Plana aurkeztuko dio Bergarako Udalari, onar dezan. Plana idazteko orduan hiru kontrol-maila hartuko dira kontuan:

- Materialak eta ekipamenduak: fabrikazio-arau onartu batekiko elkarrekikotasuna kontrolatuko da gutxienez, eta egikaritze-proiektuan adierazitako espezifikazioa. Obran jarri aurretik egingo da kontrola. Ez dira onartuko justifikatuak edo espezifikatuak ez diren materialak eta ekipamenduak, ez dira antzekoak onartuko, zuzendaritza fakultatiboak onetsitako baliokideak baizik.
- Ikuskapen-puntuen programa: instalazioen zuinketen dimentsio-egiaztapena jaso beharko du, jardunbide egokiaren arau eta irizpideen arabera.
- Funtzionamendu-proben protokoloa: proiektuan finkatutako diseinu-parametro guztien egiaztapena jaso beharko du, beharrezkotzat jotzen diren beste guztiak baztertu gabe. Hornitutako ekipamendu guztien kasuan, obran proba guztiak errepikatuko dira, fabrikatzaileak bermeetan jaso dituen funtzionamendu nominaleko parametroen arabera.

Kalitate-kontroleko plan horrek ez du salbuesten beste kontrol batzuk ere egitea, hain zuzen, indarrean den araudian finkatuta daudenak instalazioen erregistro industrialaren prozedurarako. Obra abian dela plana alda daiteke, kontrola areagotzeko beharra ikusten bada balizko akatsak antzeman direlako, materialetan edo unitateen exekuzioan.

KALITATEA ZIURTATZEKO PLANA

Lizitatzaileek, eskaintzaren barruan, Kalitatea Ziurtatzeko Planaren edukia zehazten duen eskema idatzi eta aurkeztu beharko dute; eta horrekin batera, testu labur batean, kalitatea nola eta zein baliabiderekin landuko duten azalduko dute.

Obra-kontratua esleitu ondoren, baina sinatu baino lehen, kontratista adjudikazio-hartzaileak Kalitatea Ziurtatzeko Plana idatziko du, obra-zuzendaritzari aurkeztuko dio baloratu dezan, eta, sartu beharreko edukia sartuta, eta onartua izan ondoren, kontratu-dokumentua izango da, Zuinketa-akta izenpetu aurretik.

Segurtasuna eta osasuna:

Obraren adjudikazio-hartzailea den enpresa eraikitzailea behartuta dago obran zuzenean edo zeharka parte hartuko duten langile guztiak aseguratuta izatera. Era berean, enpresak, segurtasunaren eta osasunaren arloan indarrean den legediak xedatutakoaren berri izango du, eta horren ondoriozko preskripzioak beteko ditu.

Auzitegien aurrean enpresa eraikitzailea izango da erantzule istripuren bat geratzen bada zehaztutakoa ez betetzeagatik, edota bere ardurapean diren langileen esperientzia ezak edo arduragabekeriak eraginda.

Ezustekoren baten ondorioz obrako zuzendaritza fakultatiboak egokitzat jotzen badu segurtasun-neurri bereziak hartzea, enpresa eraikitzailea behartuta egongo da neurriok hartzera.

Urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuak, Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legearen esparruan, eraikuntza-obretan aplikagarriak diren Segurtasun eta Osasun arloko gutxieneko xedapenak finkatzen ditu.

Aipatutako Errege Dekretuko 4. artikuluko 1. atala betetze aldera, obra osorako Segurtasun eta Osasun Azterketa bat gehitu da, fase bakoitzerako aurrekontuak bereizita dituena.

Azterketa hori Memoriaren eranskin gisa sartu da proiektu honetan.

Kontratista adjudikazio-hartzailea behartuta dago ardura hauek bere gain hartzera: pertsonen, ondasunen eta instalazioen segurtasuna, lanen guneak mugarritzea, obra-gunea hustu eta bukaeran garbitzea, eta hirugarrenen aurreko segurtasuna eskaintzera obren garapen normalari dagokionez. Ondorio horietarako, kontratista adjudikazio-hartzaileak kontuz erabili behar ditu bere baliabideak, aldez aurretik neurriak hartuz gertakari oro saihesteko eta, halakorik gertatuz gero, ondorioak azkar eta modu eraginkorrean mugatzea ahalbidetzeko. Ildo horretan, epeen gaineko erantzule bakar eta orokor gisa jardungo du eta horrela sentituko da, ez bakarrik obren epeei dagokienez, baita obrak egitean eta ingurunean txertatzean sortutako ondorioak ere kontuan hartuta.

Langileen eta oinezkoen segurtasuna bermatzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko dira, Laneko Segurtasun eta Osasunaren arloan indarrean den araudiarekin bat. Horrenbestez, obra hesi bidez babestuko da lanek iraun bitartean, eta lanak egiten diren bitartean aldameneko espazioak erabili ahal izango direla bermatzeko moduko segurtasun-neurriak proposatuko dira. Igarobide publikoetako muga diren lekuetan handik igarotzea ziurtatu eta onartu egin beharko zaie bai ibilgailuei bai oinezkoei, eta, horretarako, ahaleginak egin beharko dira eraginak ahalik eta txikienak eta denbora laburrenean izan daitezen, eta beharrezkoa balitz baliabide laguntzaileak erabiliko dira oinezkoak seguru igaro daitezen. En zonas lindantes con vías públicas de paso habrá que asegurar y permitir el mismo, tanto a vehículos como a peatones,

intentando que las afecciones sean las mínimas y durante el menor tiempo posible y usando si es preciso medios auxiliares que garanticen el paso seguro de peatones.

Garraio kamioiak

Kamioien zamalanak zehaztutako tokietan egin beharko dira, eta horretarako erabilitako kamioi guztiak bertan eta mantentze- eta funtzionamendu-egoera ezin hobean egon beharko dira.

Zamalanetan hasi baino lehen, eskuko balazta jarrita edukitzeaz gain, gurpilak ibilgetzeko euskarriak ere edukiko dituzte, akats mekanikoengatiko istripuak prebenitzeko.

Kamioia aparkatzeko edo ibiltzeko maniobretan dabilenean, seinalista batek gidatu beharko du.

Kamioi-kaxetara igo eta jaisteko, horretarako fabrikatuta dauden eskailerak erabiliko dira; inoiz ere ez da salto egin behar kabinatik edo kamioi-kaxatik.

Zamalanak egiteko, era egokian nola egiten den ondo dakien aditu batek gidatuko ditu lanok.

Zama ahalik eta era uniformeenean kokatu behar da, pisuak uniformeki konpentsatuz ahalik eta gehien. Material solteentzat onartzen den gehieneko gaindia gehienez ere % 5eko malda da, eta lona batekin estaliko da, erorketak eta jausiak prebenitzeko.

Zamalanen inguruan edo kamioi-gidari moduan dabiltzan langile guztiei idatziz jakinarazi beharko zaie zein den prebentzio-araudia laneko segurtasun eta osasuneko eta higienearen alorrean, betiere Zuzendaritza Fakultatiboaren adostasunarekin.

Ingurumena babestea

Obren edo horiei atxikitako instalazioen edo lantegien eraginez airea, ur-ibilguak eta, orokorrean, era guztietako ondasun publiko edo pribatuak kutsatzea ekiditeko helburuarekin Zuzendaritzak emandako aginduak betetzera behartuta dago kontratista —nahiz eta instalazioak bere jabetzako lurretan egon—, ingurumena eta natura zaintzeko indarrean diren xedapenek ezarritako mugak kontuan hartuta.

